BESTELAKO XEDAPENAK

ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

1998

EBAZPENA, 2012ko apirilaren 18koa, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzak 2012ko ekitaldian finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa ezagutzera ematen duena. Pertsona desgaituak enplegu-zentro berezietan laneratzeko aukera sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen ditu agindu horrek.

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduaren bitartez, pertsona desgaituak laneratzeko aukera sustatzeko laguntzak arautu nahi dira, bi diru-laguntza ildoren bitartez: batetik, enplegu-zentro berezietan pertsona desgaituentzako lana eta enplegu berriak sortzeko proiektuak finantzatu nahi dira, eta, bestetik, kolektibo horretako kideek enplegu-zentro berezi horietan dauzkaten lanpostuei eustea bultzatu nahi da.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren bidez Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren eremuko lan-legeria betearazteko betetzen zituen eginkizunak eta zerbitzuak Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu ondoren, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuak bere gain hartu zituen eginkizun horiek, Euskal Autonomia Erkidegoan enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta autoenpleguaren eta enpresen sorkuntzen sustapenerako programak kudeatzeko eskumeneko erakunde autonomoa de heinean, urriaren 13ko indarreko 3/2011 Legean ezarri den bezala.

Xede berbererako laguntzak arautuko dituen araudi autonomiko bat landu eta indarrean hasi arte, diru-laguntza programa hori bete beharko da, pertsona desgaituak gizarteratzeari buruzko apirilaren 7ko 13/1982 Legean pertsona desgaituak enplegu-zentro berezietan laneratzeko aukera sustatzeari dagokionez jasotako aurreikuspenak betez.

Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduaren indarraldia mugagabea da, eta laguntza horiek ez dira lehiaketa bidez ematen. Esleitutako aurrekontu-kreditua edo hori eguneratzetik ondorioztatzen dena izango da laguntzak emateko muga, eta hori esanbidez jasota dago aginduaren laugarren xedapen gehigarrian.

Horregatik, diru-laguntzak emateko prozeduran errespetatu behar den publizitate-printzipioa betez, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren 49.1 eta 2. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz, Euskal Autonomia Erkidegoaren ekitaldi bakoitzeko aurrekontu orokorrak onartu ondoren, Agindu horretan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbateko osoa jakinarazi behar da, baita hori eguneratzetik ondoriozta daitekeena ere.

Bestetik, kontuan hartuta diru-laguntza horien kudeaketa beste Administrazio bati eskualdatu zaiola, publizitateko eta segurtasun juridikoko printzipioak errespetatzeko hobe liteke laguntzen hartzaile izan daitezkeenei informazio jakin batzuk ematea aplikatu beharreko diru-laguntzen prozeduraren eta erregimen juridikoaren inguruan.

Euskal Autonomia Erkidegoaren 2012ko ekitaldirako aurrekontu orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 6/2011 Legea onartu ondoren, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio

Kontseiluak, 2012ko martxoaren 30eko bilkuran, aldez aurretik aipatutako guztia aintzat hartuta, Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren 1998ko urriaren 16ko Aginduan araututako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzeko erabakia hartu du, eta, ildo horretan, erabaki horren edukia argitara emateko agindua eman du, baita, EAEren Administrazioak programa hori betetzeari lotuta, aplikatzekoa den diru-laguntza erregimen juridikoa eta laguntzak kudeatzeko prozedurarekin zerikusia duen guztia argitara emateko agindua ere, ebazpen honek helburu horiek bete nahi dituela aintzat hartuta.

Horregatik guztiagatik, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– 2012ko martxoaren 30eko bilkuran Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluak hartutako erabaki hau jendaurrean adieraztea:

«Pertsona desgaituak enplegu-zentro berezietan laneratzeko aukera sustatzeko laguntza eta diru-laguntza publikoak emateko oinarri arautzaileak ezartzen dituzten 1998ko urriaren 16ko Lan eta Gizarte Segurantza Ministerioaren Aginduan aurreikusitako laguntzak finantzatzeko baliabide ekonomikoak esleitzea, guztira 32.677.047 euroko zenbatekoarekin, 32110-Enplegua programaren kargura, diru-laguntza programak honela banakatuta:

– Enplegua sortzeko proiektuak finantzatzeko (4. artikuluko A idatz-zatia): 4: 800.000 euro.

– Lanpostuei eustea finantzatzeko (4. artikuluko B idatz-zatia): 31.877.047 euro.

Hala badagokio, zenbateko hori egunera daiteke, baldin eta, indarreko legeria betez, aurrekontu-aldaketak onartzen badira. Aldaketa horiek baldin badaude, gertaera hori argitara emango da, Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren ebazpenaren bitartez».

Bigarrena.– Jarraian azaltzen diren alderdien inguruko informazioa ematea. Euskal Autonomia Erkidegoaren diru-laguntzen antolamenduari eta erregimen juridikoari buruzko araudien aplikazioak alderdi horietan guztietan eragiten du:

– Ebazpen honi dagozkion diru-laguntzak lortzeko eskaerak aurkezteko, eredu ofiziala beteko da, http://www.lanbide.net webgunean, Lanbideren Euskal Enplegu Zerbitzuaren Zerbitzu Zentraletan (Atxotegi 1, Vitoria-Gasteiz. PK 01009) eta Lanbideren Lurraldeko Enplegu Bulegoetan eskuragarri dagoena.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4 artikuluan zehaztutako edozein baliabide erabiliz ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

– Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko Laneratzea Aktibatzeko Zuzendaritzak bere gain hartuko du eskaerak kudeatu eta izapidetzeko ardura, eta erakunde autonomo horretako zuzendari nagusiak izango du ebazteko eskumena.

– Ebazteko gehienez sei hilabeteko epea izango da diru-laguntza eskaera aurkezten den egunaz geroztik, eta epe hori igarotakoan ebazpenik eman ez bada, eskaera administrazio-isiltasunaren bidez baietsi dela ulertuko da.

– Zuzendari nagusiaren ebazpenak administrazio-bidea agortzen du, eta, horren aurka, berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da organo horretan, hilabeteko epean jakinarazi eta biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar

daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean jakinarazi eta biharamunetik.

– Laguntza-programa honi aplikatu behar zaizkio, batetik, Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren VI. tituluan aurreikusitako diru-laguntza erregimen juridikoa, eta, bestetik, Euskal Autonomia Erkidegoaren aurrekontu orokorren kargurako diru-laguntzen bermeei eta itzulketei buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horren kudeaketan laguntzen duten erakundeen betekizunak, erregimena eta betebeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuan aurreikusitakoa.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Errekurtsoak.

Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du, eta horren aurka berraztertzeko errekurtsoa jartzeko aukera izango da Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusiaren aurrean, hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik, edo bestela, zuzenean, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa ere jar daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegian, bi hilabeteko epean, argitaratu eta biharamunetik.

Bigarrena.– Ondorioak.

Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak ebazpen honek.

Vitoria-Gasteiz, 2012ko apirilaren 18a.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia,
JAVIER RAMOS SALAZAR.